



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

Ohiko lan jarduera abiatzearekin batera ezaguna dugun zorigaiztoko irudia itzuli da, langile bat hil da Arrigorriagako Talleres Berasategin

Une gogorak bizitzen ari gara, bai langileok zein jendarte osoa. Lanera bueltatzera behartu gaituzte, gure osasuna eta bizitza bermatua ez dagoen arren eta egoera kontrolatuta egon ez arren. Erakunde publikoek eta patronalak kapitala langileon bizitzen gainetik jartzea lehenetsi dute.

Gaur goizalean Laudioko langile bat hil da Arrigorriagako Talleres Berasategin, istripu ez traumatiko batean, egungo presio eta tentsio egoeran. Arrigorriagako enpresa honetan zuzendaritzak aktibitateari ekin zion asteartean eta oraindik ez du aurkeztu koronabirusaren aurrean aurkeztu beharreko prebentzio protokoloa.

Gaurkoarekin, gutxienez 24 dira urtea hasi zenetik Euskal Herrian lanean hildako langileak, horietatik 10 Bizkaian. Atzo, lan istripu larria izan zen Atarrabiako San Andres papertegian eta garraiolari baten heriotza Pasaiako Portuan. Honetaz aparte, bi langilek, Alberto eta Joaquinek, desagertuta jarraitzen dute Zaldibarreko zabortegian otsailaren 6tik.

LAB sindikatutik gure elkartasuna eta babesa adierazi nahi diegu hildako langilearen familia eta gertukoei.

Argi dugu laneko indarkariarekin amaitzeko lan eta bizitza duina bermatu behar direla, lanetik onik eta bizirik bueltatzea eskubidea dugulako. Ezinbestez eredu berri bat behar dugu, enpresen etekinen gainetik langileon bizitza eta osasuna lehenetsiko dituen.

LAB sindikatutik lanean eta borrokan jarraituko dugu langileon eskubide, segurtasun eta osasunaren alde. Dei egiten dugu hurrengo orduetan antolatutako salatze mobilizazioetan parte hartzera.

Talleres Berasategiko langileek 24 ordutako lanuztea egingo dute bihar, apirilaren 17an, eta goizeko 12:00etan mobilizazioa egingo dute enpresa atarian.

Honetaz gain, Aiaraldeko greba-batzordeak bi deialdi egin ditu eskualdean gaurko. 19:00etan, 5 minututako isilunea eta 19:05etik 19:15era, lapiko jotzea.

Arrigorriaga, 2020ko apirilaren 16a